



# Beste hiru haitzulo ERRENTERIAN

## LANDARBASO ABESBATZA

Norberak bere buruaz hitz egitea ez da gauza xamurra, gauza batzuk neurritz gain goratzen baitira, eta beste zenbait, ordea, bazterrean ahaztuta geratzen zaizkigu, goratzekoak ez direlako edo. Hori omen da bestek guri buruz ez idaztetik leorkeen arrisku bat.

Dena dela, inork gure lanaz eta jardunaz aipamenik egiten ez duen artean, guk geuk bete beharko dugu zeregin hori.

Idatzi honen helburua, Errenterian duela gutxi sortu dugun Landarbaso Abesbatzaren berri ematea da, abesbatza baino abesbatzak esatea, behar bada, zuzenagoa izan arren, ez baitugu talde bakarra sortu, hiru baizik.





*Ahalegina (Erreterian)*

Landarbaso elkarte duela bi urteko udazkenean sortu zen. Haur jaio berria baino ez da, beraz. Gaztetasun hau dela eta, erreteriar askok, eta Erreteriatik kanpoko gehiagok, Oarso honetan izan dute, ziur aski, gure abesbatzaren berri. Hau dugu, bada, gure burua ezagutarazteko une eta leku aproposa.

#### *Landarbaso Txiki abesbatza*

Abesbatz honetan haur eta gaztetxoek kantatzen dute, hamasei urtez beherakoek. 30 lagun inguru dira, neska-mutil, eta Jose Javier Albizu dute zuzendari.

Musikaren munduan murgiltzen hasi berri diren gaztetxo eta neska-mutil kozkorrek musikaz goza dezaten nahi genuke, eta kantua jardunbide atsegina izan dakien. Hauek dira, gazteenak alegia, edozein elkarteren biziraupena bermatuko dutenak, eta, hortaz arreta handia merezi dute.

Sortu berriak izan arren, Jose Javier Albizuren lanak izan du, dagoeneko, emaitza aipagarriak. Joan den urtean, Ereintza Elkarteak antolatutako Gabon Kantuen Sariketan, kantu orijinalaren saria eskuratu zuten. Ez zen hasiera makala izan! Honez gain, Gipuzkoako zenbait abesbatzekin elkartrukeak egin dituzte, eta Ttopara edo Topaketa moduko jaialdietan ere esku hartu izan dute.

#### *Landarbaso abesbatza*

Talde hau hamasei urtez gorako 55 lagunek osatzen dute. Ez dago bertan kantatzeko adin mugarik, berez, baina aipatzekoa da partaide gehien-gehientsuenak 25 urtez beherakoak direla. Hauek guztiak Iñaki Tolaretxipiren zuzendaritzapean aritzen dira, eta orain arteko kontzertu gehienak Gipuzkoan zehar eman dituzte: Donostian, Bergaran, Andoainan,

Erreterian...

Gaurdino izandako pozik haundienetakoa, aurten, apirilean, Ejea de los Caballeros-eko (Zaragoza) kantu lehiaketan lortutako bigarren saria izan da, ezbairik gabe. Horrelako sariak lortzeak aurrera begira lan egiteko indarra ematen du.

#### *Ahalegina abesbatza*

Ereintza elkarteak urtero antolatzen duen Gabon Kantuen Sariketan esku hartzeko asmoz eratu genuen, igazko udazkenean, abesbatz hau. Landarbaso abesbatzetako gazteen guraso eta ahaideek kantatu zuten bertan, eta sariketa honek galduxe duen sorrerako izpiritua berreskuratu nahirik egindako saioa izan zen. Beronen izaera herrikoa berrartu eta bidea berurratzen hastearren egindako saioa, alegia.

Aurten ere lehiaketa honetan esku hartzeko gogoz eta asmoz dugu 40 lagun inguruko talde hau.

\* \* \* \* \*

Hauexek dira, bada, Landarbaso elkarteko hiru taldeak. Bistan da, irakurle, gure ezaugarri nagusia gaztetasuna dela. Bidea luzea eta gogorra izango dela, beraz, ezin ahaztuko dugu, baina urratsez urrats, eta gazteen sasoi lagun, aurrera egitea da guztion xedea.

Hazia erein dugu. Orain lurra landu, ongarritu eta ureztatu egin beharko, uzta onik jasoko badugu behintzat.